

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA, Azpiegituretako eta Lurralde Garapeneko Foru Sailak norgehiagoka-erregimenean 2023ko ekitaldirako ematen dituen dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituen. Dirulaguntza horiek 7.000 biztanletik beherako Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek hirigintza-plangintza berrikusteko dira.

DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones para el ejercicio 2023 que se concedan por el Departamento Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, en régimen de concurrencia competitiva, y destinadas a la revisión de planeamiento urbanístico por los Ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia de población inferior a 7.000 habitantes.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan, Bizkaiko udalerriek hirigintza-plangintzako tresnak egiteko dirulaguntzak emateko behar diren kredituak kontsignatzen dira urtero. Horretarako, beharrezkoa da deialdiak egin aurretik horien araudi erregulatzaileria ezartzea. Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikulua Bizkaiko Foru Aldundia gaitzen du dirulaguntzak emateko

En los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia se vienen consignando cada año los créditos precisos destinados a subvencionar la elaboración de instrumentos de planeamiento urbanístico por los municipios vizcaínos, a cuyo efecto se hace necesario establecer con carácter previo a las convocatorias su normativa reguladora. El artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por el que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral habilita a la





oinarri arautzaileak foru dekretu bidez onartzeko, zerbitzu juridikoak txostena egin ondoren.

Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones mediante decreto foral, previo informe del servicio jurídico.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak epe bat ezartzen zuen udalerriek beren plangintza orokorra lege horren xedapenetara egokitzeke. Deialdi honen bidez, prozesu horren amaiera babestu eta bultzatu nahi da.

La ley 2/2006 de 30 de junio de Suelo y Urbanismo del País Vasco establecía un plazo para que los municipios adaptasen su planeamiento general a las disposiciones de esa ley. En esta convocatoria se pretende apoyar e impulsar la culminación de este proceso.

Foru-dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak; printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurrez ikusten dira eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

El presente Decreto Foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y recogidos en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021 de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 4., 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoarekin bat, xedapen orokor hau Bizkaiko Foru Aldundiaren 2023ko urteko arau-planaren jasota dago.

Asimismo, tal y como señalan los artículos 4, 5 y 6 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021 de 15 de junio por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, la presente disposición general se encuentra





recogida en el Plan Anual Normativo 2023 de la Diputación Foral de Bizkaia.

Era berean, kontuan hartu dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusitako generoaren araberrako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraitu beharreko jarraibideak, eta hori izapidetzean azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuaren 2. artikuluan aipatzen den «Generoaren Araberrako Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioaren Txostena» gehitu da.

A su vez, se han tenido en cuenta las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres y que en su tramitación se incorpora el «Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género» al que hace referencia el artículo 2 del Decreto foral 141/2013 de 19 de noviembre.

Gainera, oinarriak egiteko orduan kontuan hartu dela maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa -haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira.

Además, en la elaboración de las bases se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019 de 28 de mayo que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación de Bizkaia.

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak esleitura dauzkan eskuduntzen artean balia ditzake azaroaren Foru Administrazioari hirigintza arloan dagozkion eskumenak, zeinak 7.c.5 artikuluan zehazten baititu 25eko 27/1983 Legeak, Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunak eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeak arteko harremanei buruzkoak.

El Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial tiene atribuido el ejercicio de las competencias que, en materia de urbanismo, corresponden a la Administración Foral, en los términos previstos en el artículo 7.c.5. de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos.





Dekretu hau Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauan eta Azpiegituren eta Lurralde Garapenaren Foru Sailaren egitura organikoaren Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 24ko 101/2022 Foru Dekretuan xedatutakoaren babesean onartzen da.

El presente decreto se aprueba al amparo de lo dispuesto en la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como en el Decreto Foral 101/2022, de 24 de agosto, de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueba el reglamento de estructura orgánica del departamento foral de infraestructuras y desarrollo territorial.

Ondorioz, Azpiegitura eta Lurralde Garapen Saileko foru diputatuaren ekimenez, Bizkaiko Foru Aldundiak eztabaidatu ondoren.

En su virtud, a iniciativa del diputado foral del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia.

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. *Oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.*

7.000 biztanletik beherako Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek 2023ko ekitaldirako Azpiegitura eta Lurralde Garapen Sailaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea, hirigintza-plangintza orokorreko tresnak egiteko eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea egokitzeke.

DISPONGO

Artículo único. *Aprobación de las bases reguladoras y la convocatoria.*

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones para el ejercicio 2023 por el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial para la elaboración de instrumentos de planeamiento urbanístico general y adaptación a la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, por los ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia de población inferior a 7.000 habitantes cuyo texto se inserta a continuación.





AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetatik lehena.- *Dekretua betearazteko xedapenak emateko baimena*

Ahalmena ematen zaio Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru-diputatuari foru dekretu honetan xedatutakoa garatu, betearazi eta ezartzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Azken xedapenetako bigarrena.- *Indarrean jartzea*

Xedapen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

DISPOSICIONES FINALES

Disposición final primera. - *Autorización para dictar disposiciones de ejecución*

Se faculta al Diputado Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial para dictar cuantas disposiciones resulten necesarias para desarrollo, ejecución y aplicación de lo dispuesto en el presente decreto foral.

Disposición final segunda. - *Entrada en vigor*

La presente disposición entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren foru diputatua /
El diputado foral del Departamento de
Infraestructuras y Desarrollo
Territorial. IMANOL PRADALES GIL

Ahaldun Nagusia / El Diputado General.
UNAI REMENTERIA MAIZ





AZPIEGITUREN ETA LURRALDE GARAPENAREN FORU SAILAK, NORGEHIAGOKA ARAUBIDEAN, EMATEN DITUEN 2023ko EKITALDIKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA, 7.000 BIZTANLE BAINO GUTXIAGOKO BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALEK HIRIGINTZA PLANGINTZA BERRIKUSTEKO.

BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE CONCESIÓN DE LAS SUBVENCIONES, PARA EL EJERCICIO 2023 QUE SE CONCEDAN POR EL DEPARTAMENTO FORAL DE INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO TERRITORIAL, EN RÉGIMEN DE CONCURRENCIA COMPETITIVA, Y DESTINADAS A LA REVISIÓN DE PLANEAMIENTO URBANÍSTICO POR LOS AYUNTAMIENTOS DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA DE POBLACIÓN INFERIOR A 7.000 HABITANTES.

1. artikulua. *Xedea.*

1.- Oinarri arautzaile hauetan aipatzen diren diru-laguntzen xedea da Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanletik beherako udalen hirigintza-plangintzaren jardura orokorra sustatzea, hirigintza-plangintza berrikusteko tresnak —zerbitzu-kontratu administratibo bidez egiten direnak— egitearen ondoriozko kostuak finantzatuta, betiere jardura horren helburua udalerrien plangintza orokorra Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea egokitzea bada.

Artículo 1. *Objeto.*

1.- Constituye objeto de las subvenciones a que se refieren las presentes bases reguladoras la promoción de la actividad de planificación urbanística general de los Ayuntamientos del Territorios Histórico de Bizkaia de población inferior a 7.000 habitantes, mediante la financiación de los costes de elaboración de instrumentos de revisión de planeamiento urbanístico, que se aborden mediante contrato administrativo de servicios cuyo objeto sea la adaptación de su planeamiento general a la Ley 2/2006, de 30 de junio





2.- Dirulaguntza jaso dezaketen hirigintzako tresnak:

a) Plangintza orokorra erabat edo partez berrikustea Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea egokitzeko.

b) Plangintza orokorrak egiteko beharrezkoak diren lan eta azterlan osagarriak, bereziki ingurumenaren eraginaren gaineko ebaluazio estrategikoa egiteko direnak. Izan ere, ebaluazio hori eskatu beharrekoa da Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren arabera.

3.- Deialdi honetatik kanpo geratzen dira honako jarduera hauek:

a) Hirigintzari buruzko legerian xedatzen denaren arabera eskatu beharrekoak ez diren lan edo azterlan osagarriak.

b) Plangintza-tresnak berrikustea barik aldatzea helburu duten lanak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea egokitzeko helburua beren-beregi dutenak salbu.

c) Udal Administrazioak bere langileen edo zerbitzuen bidez egindako lanak.

de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

2.- Instrumentos urbanísticos subvencionables:

a) Revisión total o parcial de Planeamiento General con la finalidad de adaptarse de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

b) Trabajos y estudios complementarios necesarios para la elaboración de los anteriores, en especial los trabajos para la evaluación ambiental estratégica, exigible de acuerdo con el Decreto del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca 211/2012, de 16 de octubre.

3.- Quedan excluidas de la presente convocatoria las actividades siguientes:

a) Los trabajos o estudios complementarios que no resulten exigibles de acuerdo con lo dispuesto en la legislación urbanística.

b) Los trabajos que tengan por objeto la modificación y no la revisión de los Instrumentos de planeamiento, salvo los destinados específicamente a la adaptación a la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo.

c) Los trabajos realizados por la Administración municipal a través de su





propio personal o de sus servicios.

2. artikulua. *Erakunde onuradunak.*

1. Xedapen honetan jasotako dirulaguntzen onuradun izan daitezke 7.000 biztanle baino gutxiago dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak, baldin eta hirigintza-plangintza orokorra Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea egokitu behar badute eta ez badaude Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluko 2. zenbakiak jasotzen dituen egoeretako batean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan jasotzen dituen egoeretako batean.

2. Gainera, erakunde onuradunek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluan ezarritako beste betebeharrak batzuk bete beharko dituzte.

3. Maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 13. artikuluen 3. eta 4. apartatuetan ezarritako betebeharrak ere –haren bidez, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira– bete beharko dituzte.

Artículo 2. *Entidades beneficiarias.*

1. Podrán acogerse a las ayudas previstas en la presente disposición los Ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia con población inferior a 7.000 habitantes que tengan la obligación de adaptar el planeamiento urbanístico general a la Ley 2/2006 de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco y en los que no concurran ninguna de las circunstancias contenidas en el apartado 2 del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral ni en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018 de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

2. Además, las entidades beneficiarias deberán de cumplir con otras obligaciones establecidas en el artículo 46 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres

3. También deberán cumplir con las obligaciones establecidas en el artículo 13.3 y 13.4 del Decreto Foral 63/2019 de 28 de mayo por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales





3. artikulua. *Eskabideak eta dokumentazio osagarria aurkezteko modua eta epea.*

1.- Dirulaguntzak eskuratzeko eskabideak eta eskatzen den dokumentazio osagarria deialdia egiten duen organoari zuzendu behar zaizkio, eta dirulaguntza eskatzen duen udaleko alkateak sinatu behar ditu. Aurkezteko epea hilabete izango da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.- Eskabideetan alderdi hauek jaso behar dira, gutxienez:

Eskatutako zenbatekoa, eskabidearen xedea den jarduerari buruzko datuak eta eskabidearen kasu zehatza.

3.- Eskabidea aurkeztu behar da, atal guztiak behar bezala beteta, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren bulego birtualean

<https://www.bizkaia.eus/hirigintza-dirulaguntzak>

Aurrekoarekin bat, eskabideak aurkezteko bide telematikoa erabili behar denez, entitate interesdunek, aldez aurretik. sinadura elektronikoa

Artículo 3. *Forma y plazo de presentación de solicitudes, documentación complementaria.*

1.- El plazo de presentación de las solicitudes de obtención de subvenciones, dirigidas al órgano convocante y suscritas por la alcaldesa o el alcalde del Ayuntamiento solicitante, junto con la documentación complementaria exigida, será de un mes a partir del día siguiente a la publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia.

2.- Las solicitudes deberán contener, al menos, los siguientes extremos:

Importe solicitado, datos referidos a la actividad para la que se solicita y supuesto específico por el que se solicita.

3.- La solicitud, debidamente cumplimentada en todos sus términos, deberá presentarse en la Oficina Virtual del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial <https://www.bizkaia.eus/urbanismo-subvenciones> en el apartado correspondiente a su Oficina Virtual.

De acuerdo con lo anterior, la presentación telemática de las solicitudes exigirá que, con carácter previo, las entidades interesadas





izan behar dute (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA...) edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa. Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren web-orrian aurkitu daiteke alta emateko prozedurari buruzko informazioa.

dispongan de firma electrónica (Izenpe, DNI electrónico, FEA...) o del certificado electrónico B@kQ. La información sobre el procedimiento de alta está disponible en la citada página web del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial.

Eskabidea esleitzeko ezinbestekoa izango da entitatea izena emanda agertzea Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren erakunde eta pertsona fisikoen erregistroan (109/2016 Foru Dekretua, ekainaren 14koa. 2016ko 116. BAO, ekainaren 17koa). Egoera horretan ez badago, erakundeak dirulaguntza eskaera izapidetzearekin batera beteko du inskripzio-eskaera, tresna berean.

Para la adjudicación de la solicitud será requisito que la entidad figure inscrita en el Registro de entidades y personas del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial y del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad (Decreto Foral 109/2016, de 14 de junio. BOB N° 116, de 17 de junio de 2016). En el caso de no encontrarse en esta situación, la entidad cumplimentará la solicitud de inscripción simultáneamente a la tramitación de la solicitud de la subvención en la misma herramienta.

4.- Honako hauek dira agiri osagarriak:

4.- La documentación complementaria será la siguiente:

a) Dirulaguntza eskatzea erabakitzen duen udal ebazpenaren ziurtagiria.

a) El certificado de la resolución municipal por la que se acuerda solicitar la subvención.

b) Jardueraren azalpen-memoria, alderdi hauek jasotzen dituen: plangintza egiteko burutu diren faseak edo, hala bada, aurrez ikusitakoak, eta kontratatutako edo kontratatu behar den zerbitzu-kontratuaren ezaugarriak. Halaber, memoria berean, atal batean,

b) Memoria explicativa de la actividad, con indicación de las fases realizadas o previstas, en su caso, del proceso de elaboración del planeamiento, y características del contrato de servicios contratado o a contratar al efecto. Además, en la misma memoria también





garatuko den jardueran genero-ikuspegia nola txertatu den azaldu beharko da.

Gainera, kontratatu duten edo kontratatu beharreko zerbitzu-kontratuan klausula sozialak, ingurumen arlokoak edo beste politika publiko batzuei buruzkoak sartu dituzten edo sartuko dituzten udalek memoriaren atal batean adierazi beharko dute non sartu edo sartuko dituzten klausula horiek –baloratu diezazkieten– eta zer klausula-mota den. Izan ere, genero-ikuspegia integratzeko klausulak ezin dira baloratu, genero-ikuspegiaren integrazioa derrigorrezko baldintza baita dirulaguntzaren onuradun izateko.

c) Dirulaguntza eskatzean aurrez ikusitako gastuaren aurrekontu arrazoitua, honako alderdi hauek jasotzen dituen: adjudikazio prezioa edo, hala badagokio, kontratu administratiboaren lizitazio-aurrekontua, egin beharreko lanen edukia eta baldintzak, lan horien faseak egiteko epeak eta epe horiek araberako gastu-aurreikuspenak.

5.- Eskabidearekin batera eskatzen diren agiriak aurkeztzen ez badira edota osorik beteta ez badaude, udalbatza interesdunei errekerimendua egingo zaie hamar eguneko epean (ezin da luzatu) akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituzten nahitaezko agiriak

se hará referencia en un apartado a cómo se integra la perspectiva de género en la actividad a desarrollar.

A su vez, aquellos Ayuntamientos que hayan incorporado o vayan a incorporar cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en el contrato de servicios contratado o a contratar deberán indicar en un apartado de la memoria, a efectos de que se les valore, dónde concretamente lo han introducido o lo van a introducir y de qué cláusula se trata, no pudiendo ser objeto de valoración las cláusulas que integran la perspectiva de género ya que la integración de la perspectiva de género es condición obligatoria para ser sujeto beneficiario de la subvención.

c) Presupuesto razonado del gasto previsto y para el que se solicita la subvención, que contemple el precio de adjudicación o, en su caso, el presupuesto de licitación del contrato administrativo, contenido y condiciones de ejecución de los trabajos a ejecutar con indicación de los plazos de ejecución de las diferentes fases de elaboración y las previsiones de gasto en razón de ello.

5.- Si junto con la solicitud no se aportan los documentos exigidos o se aportan de forma incompleta, se requerirá a las Corporaciones interesadas para que en el plazo improrrogable de diez días subsanen los defectos observados, con apercibimiento de que, de no hacerlo en





eramateko. Era berean, jakinarazi egingo zaie hala egin ez badute eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela, horretarako ebazpena Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikuluan jasotako moduan eman ondoren.

6.- Edonola ere, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

7.- Eskabideak aurkezteko epea ezingo da luzatu, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.2 artikulua aurrez ikusten duenez.

4. artikulua. *Dirulaguntzak emateko prozedura.*

1.- Dirulaguntzak emateko prozeduran, deialdi eta hautaketa-prozedura bakarraren bidezko norgehiagoka sistemarako arau bidez ezarritako izapideak beteko dira.

2.- Prozedura bideratzeko organo eskuduna Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako zuzendari

el plazo señalado, se les tendrá por desistidos de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 21 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

6.- En todo caso, el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial podrá solicitar cuanta información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de las solicitudes presentadas.

7.- El plazo de presentación de solicitudes no podrá ser ampliado, según previene el artículo 68.2 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas

Artículo 4. *Procedimiento de concesión.*

1.- El procedimiento de concesión de las subvenciones se ajustará a los trámites normativamente previstos para el régimen de concurrencia competitiva mediante convocatoria y procedimiento selectivo único.

2.- El órgano competente para la instrucción del procedimiento será el Director General de Infraestructuras y





nagusia izango da, zeinak aurkeztutako eskabideak ebaluatuko baititu.

3.- Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako zuzendari nagusiak, Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiko Atal Juridikoak txostena emanda, prozedura ebazteko proposamena egingo dio Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru-diputatuari, foru agindua eman dezan.

4.- Prozedura ebazteko eta ebazpena interesdunei jakinarazteko gehienez ere sei hilabeteko epea egongo da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Horretarako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.5. artikuluan xedatutakoari heldu ahal izango diote.

5. Aurreko zenbakian adierazten den gehieneko epea igaro bada eta ez bada ebazpenik eman ez jakinarazi, interesdunek beren eskabideak administrazio-isiltasunez ezetsitzat jo ahalko dituzte.

6. Deialdia ebatziko duen foru agindua

Desarrollo Territorial, que llevará a cabo la evaluación de las solicitudes presentadas.

3.- El Director General de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, previo informe de la Sección Jurídica de Urbanismo del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial formulará la propuesta de resolución ante el Diputado Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial para la resolución del procedimiento, que decidirá mediante Orden Foral.

4.- La resolución del procedimiento será dictada y notificada a los interesados en el plazo máximo de seis meses computados a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia. Para ello, podrán acogerse a las previsiones del artículo 21.5 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

5. Transcurrido el plazo máximo señalado en el párrafo anterior sin que se hubiera dictado y notificado la resolución, los interesados podrán entender desestimadas sus solicitudes por silencio administrativo.

6. La Orden Foral por la que se resuelve





eskabidea aurkeztu duten udal guztiei jakinaraziko zaie. Jakinarazpenean, datu hauek jasoko dira: dirulaguntzaren udal onuradunak, bakoitzari ematen zaion zenbatekoa eta, hala badagokio, onartu ez diren eskabideak eta, onartuta badaude ere, dirulaguntzarik jaso ez dutenak (irizpideak aplikatuta aukeratuak izan ez direlako, onartutako eskabideen zenbatekoak guztira deitutako gehieneko zenbatekoa gainditzeagatik).

la convocatoria se notificará a todos los Ayuntamientos que hayan cursado una solicitud, incluyendo en todo caso la relación de las corporaciones beneficiarias a los que se otorga la subvención con las cuantías individualizadas y, en su caso, indicación de solicitudes no admitidas y aquellas que admitidas no obtienen subvención al no resultar seleccionada en aplicación de los criterios, cuando el importe total de las solicitudes admitidas supere la cuantía máxima convocada.

7. Prozeduraren ebazpenak amaitu egiten du administrazio-bidea, eta, haren aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiaren aurrean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatutako bi hilabeteko epearen barruan, edo, nahi izanez gero, aipaturiko errekurtsua baino lehenago, errekerimendu-idazkia Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehazten denaren arabera.

7. Contra la resolución del procedimiento, que pone fin a la vía administrativa, los interesados podrán interponer recurso contencioso administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación, ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo, o, potestativamente, y con carácter previo al recurso citado, escrito de requerimiento en los términos previstos en el artículo 44 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa.

5. artikulua. *Deialdiko dirulaguntzak egozten zaizkien aurrekontuko kredituak eta dirulaguntzen gehieneko zenbateko osoa.*

Artículo 5. *Créditos presupuestarios a los que se imputan las subvenciones convocadas y cuantía total máxima de las subvenciones.*

1.- Dirulaguntzak aurrekontu-partidan kontsignatutako kredituaren kargura

1.-Las subvenciones se imputarán con cargo al crédito consignado en la partida





egotziko dira, epigrafe hauen arabera: 2023ko ekitaldia; 1002 zentro kudeatzailea, 151.102 programa; ekonomikoa, 73299; Azpiegitura eta Lurralde Garapen Sailaren aurrekontuko 2007/0247 proiektua. Guztira, 1.000.000 euro erabiliko dira, gehienez, kreditu erabilgarriaren barruan deitutako dirulaguntzetarako.

presupuestaria que responde a los siguientes epígrafes: ejercicio 2023; centro gestor 1002, programa 151.102; económico 73299; proyecto 2007/0247 del presupuesto del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, siendo 1.000.000 euros la cuantía total máxima de las subvenciones convocadas dentro del crédito disponible.

2.- Eskaera guztiak ebatzi ondoren, guztira dirulaguntzetarako emandako diru kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa bada, gainerako zenbatekoa hainbanatu egingo da dirulaguntzaren onuradun diren udalen artean, eta, salbuespen-kasu horretan baino ezingo da gainditu gehieneko 40.000 euroko kopurua. Baina dirukopuru hori ezin da inoiz izan kontratatuko lanen prezioa baino altuagoa.

2.- Si una vez resueltas todas las solicitudes no se alcanzara el límite presupuestario máximo, se procederá al prorrateo del importe sobrante entre los Ayuntamientos beneficiarios de la subvención, pudiendo sólo en este caso y excepcionalmente, superar el importe máximo de 40.000 euros y nunca superior al importe de los trabajos contratados.

6. artikulua. *Eskabideak baloratzeko irizpideak.*

1. Onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten artean balorazio altuena lortu duten eskatzaileei emango zaie dirulaguntza. Eskaera guztien baturak aurrekontuko hornidura gainditzeko badu, orduan, eskaerak hautatzeko, honako puntuazio hauek emango dira.

Artículo 6. *Criterios de valoración de las solicitudes.*

1. Las subvenciones se otorgarán a los solicitantes que obtengan mejor valoración de entre los que cumplan los requisitos para ser beneficiarios. Para la selección de las peticiones, en el caso de que la suma de todas ellas supere la consignación presupuestaria, se otorgarán las siguientes puntuaciones:

- 3 puntu emango zaizkie plangintza prestatzeko prozesua hasi eta azken hiru deialdietan dirulaguntzarik jaso

- 3 puntos: A aquellos que hubieran iniciado el proceso de elaboración del planeamiento y no hubieran





ez dutenei.

recibido subvención en las tres últimas convocatorias.

– 2 puntu emango zaizkie plangintza prestatzeko prozesua hasi eta azken hiru deialdietan dirulaguntza jaso dutenei.

– 2 puntos: A aquellos que hubieran iniciado el proceso de elaboración y hubieran recibido subvención en las tres últimas convocatorias.

– Puntu 1 emango zaie plangintza prestatzeko prozesua hasi ez dutenei.

– 1 punto: A aquellos que aún no hubieran iniciado el proceso de elaboración de planeamiento.

2. Gainera, beste puntu bat emango zaie kontratatu duten edo kontratatu beharreko zerbitzu-kontratuan klausula sozialak, ingurumen arlokoak edo beste politika publiko batzuei buruzkoak sartu dituzten edo sartuko dituzten udalei. Gehienez, puntu bat gehiago emango da sartu edo sartuko diren klausula sozial, ingurumen arloko edo beste politika publiko batzuei buruzkoen kopurua gorabehera.

2. Además, se otorgará un punto adicional a aquellos Ayuntamientos que hayan incorporado o vayan a incorporar cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en el contrato de servicios contratado o a contratar, siendo el máximo de 1 punto independientemente del número de cláusulas sociales, medioambientales y de otras políticas públicas incorporadas o a incorporar.

3. Ez dira baloratuko genero-ikuspegia integratzeko klausulak, genero-ikuspegiaren integrazioa derrigorrezko baldintza baita dirulaguntzaren onuradun izateko.

3. Quedan excluidas, a efectos de valoración, las cláusulas que integren la perspectiva de género ya que la integración de la perspectiva de género es condición obligatoria para ser sujeto beneficiario de la subvención.

4. Horrez gainera, ez da ingurumen arloko klausulatzat hartuko zerbitzu-kontratuaren helburua izatea ingurumen-ebaluazioaren pean jarri

4. No se tendrá en cuenta a efectos de consideración como cláusulas medioambientales el hecho de que el objeto del contrato de servicios sea la





behar den agiri bat egitea.

elaboración de un documento que tiene que ser sometido a evaluación ambiental.

5. Aurreko irizpideak aplikatuta puntuaziorik handiena lortzen dutenen artean berdinketa gertatuz gero, aurrekontuan jasotako zenbatekoa gainditzen bada, eskabidea aurkeztu den hurrenkera hartuko da kontuan, sarrera-erregistroan ageri diren data eta ordua kontuan hartuta.

5. Para el caso de empate entre los que obtengan mayor puntuación en aplicación de los anteriores criterios, si se supera la cuantía presupuestada se tendrá en cuenta el orden de presentación de la solicitud atendiendo a la fecha y hora que conste en el Registro de Entrada.

7. artikulua. *Dirulaguntza jaso dezakeen gastua eta dirulaguntzen banakako zenbatekoa.*

Artículo 7. *Gasto subvencionable y cuantía individualizada de las subvenciones.*

1.- Udalerrriaren plangintza orokorra berrikusteko hirigintza-tresna egiteko kostuak finantzatzeko emango da dirulaguntza, betiere zerbitzu-kontratu administratibo bidez egiten bada.

1.- La subvención que se concede servirá para financiar los costes de elaboración del instrumento urbanístico de revisión de planeamiento general del municipio que se aborde mediante contrato administrativo de servicios.

Dirulaguntzaren xedean jasotako kostuen barruan (BEZa barne), hirigintza-tresna egiteko zerbitzu-kontratuaz gainera, honako kontratu hauek ere sartu ahal izango dira: hirigintzako, ingurumeneko eta sektoreko legeriaren arabera osagarriak eta beharrezkoak edo eskatzekoak diren dokumentu eta azterlanak egiteko kontratuak (herritarrek parte hartzeko prozesuak, genero-ikuspegia txertatzea, ingurumenaren gaineko ebaluazio estrategikoa, azterlan akustikoak edo

Dentro de los costes (IVA incluido) objeto de la subvención se contemplarán además del contrato de servicios para elaboración del instrumento urbanístico, aquellos contratos que se realicen para elaboración de documentos y estudios complementarios y necesarios o exigibles de acuerdo con la legislación urbanística, medioambiental y sectorial, tales como procesos de participación ciudadana, inclusión de perspectiva de género, evaluación ambiental estratégica, estudios acústicos o





zonakatze akustikoa eta zarata-mapa egitea).

elaboración de zonificación acústica y mapa de ruido, en su caso.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoaren arabera ateratzen den zenbatekoa ez da hasieran 40.000 eurotik gorakoa izango, zenbateko hori izango baita Foru Sailaren gehieneko ekarpena, 5.2. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. La cuantía de la subvención resultante según lo previsto en el anterior apartado, no podrá superar inicialmente la cantidad de 40.000 euros. Dicha cantidad tendrá el carácter de aportación máxima por parte del Departamento Foral, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 5.2.

Horrez gainera, dirulaguntza ezin izango da kontratatutako lanen prezioa baino handiagoa izan; beraz, udalak kontratua adjudikatu ondoren, adjudikazioaren prezioaren berri eman beharko dio Sailari, eta, adjudikazioaren zenbatekoa emandako dirulaguntzarena baino txikiagoa bada, sobera emandako diru-kopurua itzuli beharko du udalak.

Asimismo, no se podrá subvencionar un importe superior al precio de los trabajos contratados, por lo que una vez adjudicado por el Ayuntamiento el contrato deberá comunicar el mismo al Departamento, y en el supuesto de que el importe de adjudicación sea inferior al importe de la subvención concedida, procederá el reintegro del exceso del importe de la subvención concedida.

3. Dirulaguntzen deialdi hau beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarria da, estatuko nahiz Europar Batasuneko beste edozein administrazio edo entitate publiko edo nazioarteko erakundeek helburu berarekin emandakoak badira.

3. La presente convocatoria de subvenciones es compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

8. artikulua. *Emandako dirulaguntzen publizitatea.*

Artículo 8. *Publicidad de las subvenciones concedidas.*





1.- Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 17. artikuluan eta haren Erregelamenduaren 25. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, dirulaguntzen organo emaileak deialdi honen babesean emandako dirulaguntzen zerrenda argitaratuko du, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

2.- Udal onuradunek publizitate egokia egingo diote diruz lagundutako plan eta lanak egiteko jasotzen duten finantza-lankidetzaren publikoari, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren erakunde-irudia jarritik edo dagokion aipamena eginez diruz lagundutako lanak ezagutarazteko sustatuko diren jendaurreko hedapen-ekitaldietan.

9. artikulua. *Dirulaguntzen justifikazioa eta ordainketa.*

1.- Deialdi honen arrazoia da udalek aurrekontuko zailtasuna dutela diruz lagundutako jarduerak une honetan finantzatzeko; hori dela eta, erabakitzen da dirulaguntza aurretik ordaintzea. Eta, erakunde onuradunak administrazio publikoak direnez, ez da bermerik eskatuko, ez baita ikusten hartutako betebeharrak ez betetzeko arriskurik.

1.- De conformidad con lo establecido en el artículo 17 de la Norma Foral de Subvenciones y el artículo 25 de su Reglamento el órgano concedente publicará la relación de subvenciones concedidas al amparo de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia.

2.- Los Ayuntamientos beneficiarios deberán dar adecuada publicidad a la colaboración financiera pública recibida para la elaboración de los planes y trabajos subvencionados, mediante la inclusión de imagen institucional del Departamento Infraestructuras y Desarrollo Territorial o correspondiente mención en los actos de divulgación pública que se promuevan para dar a conocer los trabajos subvencionados.

Artículo 9. *Justificación y pago de las subvenciones.*

1.- Dado que la presente convocatoria se justifica en la dificultad presupuestaria de los Ayuntamientos para financiar transitoriamente la ejecución de la actividad subvencionada, se opta por la modalidad de pago anticipado de la subvención. Y, conforme el carácter de Administración pública de las entidades beneficiarias no será exigible la prestación de garantía por cuanto no se aprecia riesgo de incumplimiento de obligaciones asumidas.





2.- Ezarritako agiriak aurkeztuta egin beharko da dirulaguntzen justifikazioa.

Justifikazio hori, atal guztiak behar bezala beteta, aurkeztu beharko da, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren webgunean dagoen formularioaren bidez, Bulego Birtualari dagokion atalean: <https://www.bizkaia.eus/hirigintza-dirulaguntzak>.

Honako dokumentu hauek aurkeztu behar ditu udal onuradunak:

a) Zerbitzu-kontratu administratiboaren kopia egiaztatua eta udalaren erantzukizunpeko adierazpena, non esaten den udalak plangintza egiteko faseak – dirulaguntzaren ordainketaren xede direnak – egingo dituela.

b) Ziurtagiriak, fakturak edo haiek ordezkatzeko dituzten agiriak, jatorrizkoak edo haien fotokopia konpultsatuak, bai eta emandako lanen onarpen-akta edo hura ordezkatzeko duen agiria ere.

3.- Kontratuaren faseak egin eta lan partzialak ziurtatu eta fakturatu ahala, dirulaguntzaren justifikazioa egingo da dagokion zatian. Justifikazio guztia

2.- Las subvenciones deberán justificarse mediante la presentación de la documentación establecida.

Esta justificación, debidamente cumplimentada en todos sus términos, deberá presentarse mediante el formulario que figura en la página web del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, apartado correspondiente a su Oficina Virtual <https://www.bizkaia.eus/urbanismo-subvenciones>.

Se deberá presentar por el Ayuntamiento beneficiario de la subvención la siguiente documentación:

a) Copia adverada del contrato administrativo de servicios junto con declaración responsable del Ayuntamiento de la realización de la fase o fases de elaboración del planeamiento a que se refieren los abonos atribuibles a la subvención.

b) Certificaciones, facturas o documentos que las sustituyan, en original o fotocopia compulsada, así como el Acta de Recepción de los trabajos entregados o documento que lo sustituya.

3.- Conforme se vayan efectuando las fases del contrato, certificando y facturando los trabajos parciales se aportará la justificación y aplicación de





aurkezteko azken eguna 2023ko abenduaren 30a izango da. Epe hori dirulaguntza eta jarduera egin izana justifikatzeko ere izango da, eta ezingo da luzatu.

la subvención en la parte que corresponda. La fecha límite para la presentación de justificación total será el día 30 de diciembre del año 2023, este plazo, que es también plazo de justificación de la subvención y de la realización de la actividad, no podrá prorrogarse.

4.- Dirulaguntza ez da ordainduko eskaera izapidetu bitartean eskatzaileak ez baditu egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, edo zorduna bada dirulaguntzak itzultzeko prozeduraren ebazpen baten bidez.

4.- No se materializará el pago de la subvención si a la fecha de su tramitación no se está al corriente de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, o se es deudora por resolución del procedimiento de reintegro de subvenciones.

5- Edonola ere, dirulaguntza jaso duten udalek dirulaguntzaren xedea dela-eta Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak eskatuko dien informazio guztia eman behar diote. Horrez gainera, adierazitako sailari jakinaraziko diote dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako baldintzak aldatzea dakarren edozein inguruabar, bai eta helburu bererako beste laguntza edo dirulaguntzarik jaso duten ere.

5- En cualquier caso, los municipios que hayan obtenido la correspondiente subvención tendrán la obligación de facilitar cuanta información les sea requerida por el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial en relación con el objeto de la subvención, así como de poner en conocimiento del citado Departamento cualquier circunstancia que suponga una alteración de las condiciones tenidas en cuenta en la concesión de la subvención y la obtención de otras ayudas o subvenciones públicas para la misma finalidad.

10. artikulua. *Baldintzak ez betetzea eta dirulaguntza itzultzea.*

Artículo 10. *Incumplimiento y reintegros.*

1.- Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko

1.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 16.2.k de la Norma Foral





orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.2.k artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzen ez-betetzeak mailakatzeko irizpideak honako hauek dira:

- Dirulaguntzaren helburu ziren lanak oso-osorik burutu ezik, emandako dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

- Dirulaguntzaren helburu ziren lanen zati bat burutu ezean, burutu ez den zatiari dagokion diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

- Dirulaguntzak ez badira justifikatzen eta justifikazioa nahikoa ez bada edo akatsak baditu, dekretu honetan ezarritakoaren arabera betiere, orduan, emandako dirulaguntza, epe barruan justifikatu gabe dagoena, kobratzeko eskubidea galduko da.

2.- Jasotako diru-kopuruak eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzultzea erabakitzen den arte sortutako berandutze-interesak itzuli beharko dira, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautu duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan jasotako kasuen artean ezar

5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, se establecen los siguientes criterios para la graduación de los incumplimientos de las condiciones impuestas con motivo del otorgamiento de la subvención:

- La inejecución total de los trabajos de elaboración para los que se otorgó la subvención conllevará la pérdida del derecho de cobro de la ayuda concedida.

- La inejecución parcial de los trabajos de elaboración para los que se otorgó la subvención, dará lugar la pérdida del derecho de cobro de la subvención correspondiente a la parte no ejecutada.

- La no justificación y la justificación insuficiente o deficiente en los términos establecidos en este Decreto, dará lugar a la pérdida del derecho de cobro de la parte de la subvención concedida y no justificada en tiempo.

2.- Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro en los casos que resulten de aplicación de los previstos en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el





daitezkeenetan.

régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

3.- Udal onuradunaren ekimenez dirulaguntzaren zati bat edo osoa itzultzeko, beharrezkoa izango da aurretik ordainketa-gutuna eskatzea.

3.- El reintegro de todo o parte de la subvención a iniciativa del Ayuntamiento beneficiario requerirá la previa solicitud de la correspondiente carta de pago.

4.- Dirulaguntzen udal onuradunak Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak ezartzen dituen erantzukizun- eta zehapen-araubideen mende egongo dira.

4.- Los Ayuntamientos beneficiarios de las subvenciones quedarán sujetos a las responsabilidades y régimen sancionador previstas en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

11. artikulua. *Jakinarazpen elektronikoa.*

Artículo 11. *Notificación electrónica.*

1. Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak bitarteko elektronikoen bidez egingo dizkie jakinarazpenak entitate interesdunei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta haren hurrengoan aurreikusitakoarekin bat.

1. Las notificaciones realizadas por parte del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial a las entidades interesadas se realizarán por medios electrónicos, de acuerdo con lo previsto en el artículo 40 y siguientes de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

2. Bitarteko elektronikoen bidezko jakinarazpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoa agertuz egingo dira (<https://www.ebizkaia.eus>).

2. Las notificaciones por medios electrónicos se practicarán mediante comparecencia en la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia





www.ebizkaia.eus) araudi bi hauetan ezarritakoaren arabera: Bizkaiko Foru Aldundiaren 62/2015 Foru Dekretua, maiatzaren 5ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa, eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren 4841/2016 Foru Agindua, ekainaren 6koa, jakinarazpenak eta komunikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egiteari buruzkoa.

12. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Oinarri arautzaile hauetan aurreikusi ez diren kasuetarako eta osagarri gisa, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua; martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua, 5/2005 Foru Araua garatzen duen Dirulaguntzei buruzko Erregelamendua onartzen duena; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta beren izaera dela medio aplikatu daitezkeen gainerako xedapen arau-emaille guztiak.

2. Gainera, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua ere aplikatuko da, emandako

(<https://www.ebizkaia.eus>), de conformidad con lo establecido en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 62/2015, de 5 de mayo, de Administración Electrónica, así como en la Orden Foral de la Diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales 4841/2016, de 6 de junio, sobre la práctica de las notificaciones y comunicaciones por medio del sistema de comparecencia en la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

Artículo 12. Régimen jurídico.

1. Para lo no previsto en las presentes Bases reguladoras se aplicará, con carácter supletorio, lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el Régimen Jurídico General de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral; Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones que desarrolla la Norma Foral 5/2005, en la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, las normas de derecho privado que, por su naturaleza, pudieran resultar de aplicación.

2. Además, también será aplicable la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia respecto a





dirulaguntzak direla eta haren 9. artikuluaren g) letran ezarritako kudeaketa publikoari buruzko informazioari dagokionez.

la información de gestión pública recogida en su artículo 9 apartado g) referente a las subvenciones otorgadas.

